



## Leiharen Defentsarako Euskal Zerbitzua

Lehia Babesteko Euskal Zerbitzuak hasiko du prozedura, bere kabuz edo salaketaren bidez.

Debekatutako jokabidea edonork sala dezake; edonork aurkez dezake salaketa Zerbitzuan, eta Zerbitzuak espedientea hasiko du jokabide horiek izan direlako zantzu arrazoizkorik ikusten badu.

Arau-hauste baten berria iristen zaionean, Zerbitzuak isilpeko ikerketa bat has dezake zigor-espedientea hasi aurretik; ikerketa horretan, arau-haustean zerikusia duten enpresak eurak ere iker ditzake, enpresen lokaletara berorietara joaz.

Zerbitzuak uste badu ez dagoela Lehia Babesteko Legea urratu izanaren zantzurik, Lehia Babesteko Euskal Auzitegiari jarduketak artxibatzea eska diezaioke.

Espedientea hastea erabakitzeke ebazpenean, instrukzio-egile bat izendatuko da, eta, hala balegokio, baita instrukzio-idazkari bat ere, eta jakinarazi egingo zaie interesdunei.

Zerbitzuak egitateak argitzeko eta erantzukizuna nori dagokion zehazteko behar diren instrukzio-eginbide guztiak egingo ditu.

Egitateak zehazteko orri batean jasoko dira arau-haustetzat jo daitezkeenak, eta orri hori interesdunei helaraziko zaie, eta hamabost egun izango dute erantzuteko, eta, hala balegokio, egoki deritzen frogak proposatzeko.

Instrukzio-eginbide guztiak bukatutakoan, LBEZak ebazpen proposamena egingo du. Bertan honako hauek zehaztuko dira: espedientearen aurrekariak, hautemandako jokabideak, egileak, egitateen kalifikazioa, arau-haustea egon denaren proposamena, eta hala balegokio, merkatuari eragindako ondorioak, egileei dagozkien erantzukizunak, inguruabar larrigarriak eta aringarriak eta isunaren salbuesteko edo murrizteko LBEZ-ren proposamena. Proposamena interesdunei igorriko zaie, hamabost eguneko epean nahi duten alegazioak aurkeztu dezaten.

Zerbitzuak, instrukzioa amaitutakoan, Lehia Babesteko Euskal Auzitegiari igorriko dio espedientea; espedientearekin batera txosten bat igorriko dio, eta, bertan, ebazpen proposamena eta horri egindako alegazioak zehaztuko dira. Bidezkoa den kasuetan, isunetik salbuesteko edo isuna murrizteko proposamena ere erantsiko zaio espedienteari.